



## **BERGARAKO BARATZE EKOLOGIKOEN ESLEIPEN ETA KUDEAKETARAKO ORDENANTZA**

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

**Onartuta:** Udalbatzak 2022/05/30ean

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022/08/02an

# BERGARAKO BARATZE EKOLOGIKOEN ESLEIPEN ETA KUDEAKETARAKO ORDENANTZA

Bergarako Udalak zenbait udal partzela herritarren eskura jarriko ditu aisialdirako baratze modura erabiltzeko. Udalak modu horretan aisialdi aktiborako eta inklusiborako topagune bat sustatuko du, gizatalde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak nahiz belaunaldi ezberdinen arteko trukea bultzatzeko; eta, aldi berean, nekazaritza ekologikoari bultzada bat emateko.

Helburuetako bat aisialdia den heinean, baratze hauetatik ateratako produktuak saltzea debekatuta egongo da eta, beraz, norberak kontsumitzeko eta etxeko erabilerarako soilik diren produktuak bakarrik landatu ahalko dira.

Ordenantza honen xedea Bergarako Baratze Parkea osatzen duten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko beharrezko baldintzak ezartzea da eta, aldi berean, baratzeetako laborantza jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzea.

## I. ATALA

### *PRINTZIPIO OROKORRAK*

#### *1. artikulua. Ordenantzaren Xedea.*

Ordenantza honen helburua da Bergarako Baratze Parkea osatzen duten lursailen erabilera eta aprobetxamendua, erabilera esleitzeko prozedura, baratzeetako laborantza jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzea.

#### *2. artikulua. Aplikazio-eremua.*

Ordenantzaren aplikazio-eremu objektiboa Bergarako Baratze Parkean kokatu diren lursailen barneko eremua izango da.

Eremu subjektiboari dagokionez, ordenantza honen edukia aplikatuko beharko zaie Bergarako udalerrri honetan legezko eta izatezko egoiliarrei, aisialdiko baratze ekologikokoak erabili, gozatu eta etekina ateratzeko, baldin eta esleitzeko ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak betetzen badira.

#### *3. artikulua. Definizioa*

a) Erabiltzailea: Lizentziaren adjudikazio hartzailea edo titularra: Lagatzen den ondasuna erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea jasoko duen pertsona fisikoa. Hemen garrantzia duten ondorioetarako, aisialdirako baratze ekologikoaren lagapenaren onuraduna.

b) Emaizak: Baratzea erabiltzailearen ondorioz sorturiko etekinak, hau da, ereintzatik eta lurra lantzetik sorturikoak, esate baterako: barazkiak, ortuariak, etab.

c) Elementu komunak: Baratzeak dauden udal lursailari dagozkion berezko elementuak, naturalak edo jarritakoak, eta lizentzia duen bati baino gehiagori edo denei balio zaizkienak: pasabideak, hesiak, hodiak, tangak, muga-piboteak, etab. Era berean, elementu komuntzat hartuko dira laborantzarako tresnak eta lanabesak, erabiltzaileen eskura jarriko direnak.

d) Erantzukizuna: Baratze erabiltzaile bakoitzak duen erantzukizuna da, banako gisa eta erabiltzaile den sail zatiaren arabera.

f) Baratze ekologikoko lursaila: Banakoari egokitzen zaion lursail zatia. Eta, horrekiko erabiltzaileak erabiltzeko eskubidea eratzen da.

g) Familia-unitatea: Etxebizitza berean izatez eta eskubidez elkarrekin bizi diren pertsonak: ezkontideak edo izatezko bikotea (edo bikotekide bat alarguntza, banaketa edo dibortzioen kasuan) eta adinez beherakoak diren seme-alabak, etxebizitza berean bizi direnak.

h) Interes taldeak: Irabazi asmorik gabeko elkarteak, eskolak edo egoera zaurgarrian dauden kolektiboak.

#### *4. artikulua. Elkartearen eraketa.*

Behin betikoz esleipendunak diren pertsonak behartuta egongo dira elkarte bat sortzera baratzeak kudeatzeko eta, horrez gain, kudeaketaren udal arduradunarekin zuzeneko harremana izateko pertsona bat izendatu beharko dute. Bozeramaile hori erabiltzaileen zalantzak, arazoak etab. jasotzeaz arduratuko da.

Era berean, elkartearen helburua izango da Bergarako Baratze Parkea zaintzea zuzen funtziona dezan eta gutxieneko mantentze lanak burutzea.

#### *5. artikulua. Elkartearen funtzioak*

Begarako Udalak, uko egin gabe jabari publikoaren erabilera pribatiboa erregulatzeko duen obligazioari, uste du ortuetako erabiltzeko lizentziadunek, elkartearen bidez, jardueraren kudeaketa arruntan jardun behar dutela; era horretan, eguneroko kudeaketaren ardura bereganatzeko.

Elkartearen funtzioak izango dira, besteak beste, honako hauek:

- Instalazioak eta jarduerak kudeatzea, horien plangintzaren bidez, eta saiatzeko kontzesionarioen interesak eta legezko interesak bateragarri egiten.
- Jarduerak garatzearen ondorioz sortu daitezkeen gorabeherak erabakitzea.
- Mantentze lan arruntak egitea, hau da, elementuak erabilera arruntan hondatutako elementuak konpondu eta berriro jartzeko jarduerak.
- Urteko memoria bat aurkeztea. Hor agertuko dira aurreko urtean egindako jarduerak, memoria ekonomikoa, hartutako akordioak, elkarteko kideen zerrenda, Zuzendaritza Batzordearen aldaketak, eta abar. Halaber, aurreko urtean egindako bileren akten kopiak erantsiko zaizkio.
- Instalazioen eta elementu komun guztien garbiketaz arduratuko da. Horretarako, garbiketa egutegi bat aurkeztu beharko du Udalean, eta hala badagokio, kontratatutako enpresarekin sinatutako mantentze kontratua.
- Ortu ekologikoen jarduerak sortzen dituen ur eta elektrizitatea (balego) kontratatu eta gastuei aurre egiteaz arduratuko da, bai eta nekazaritza jarduera egiteko behar diren hornidurez ere (ongarriak, landareak...). Uraren kasuan, Elkarateak ahalmena du uraren erabilera arautzeko baita ere, horrela erabiliko balu ur-kontsumoak erabiltzaileei egokitzeko. Zentzu horretan egokia ikusiko balu ireki zein itxi ordutegia erabaki lezake.
- Udalak erabiltzaileen eskura jarriko dituen eraikin eta instalazioen, laborantzako tresna zein lanabesen garbiketa eta mantenua, eta laborantzako tresna berrien horniketa egitea. Halaber, laborantzako tresna zein lanabesen inbentarioa eramatea. Halaber, hauen erabilera egokia kontrolatuko du eta beharrezko ikusiko balu, tresneriaren mailegua arautuko ahal izango du.
- Erabiltzaileen aurka irekitako ondare ardura eta zigor espedienteetan parte hartzea, hau da, zigor espedientearen instrukzioan bi kasutan entzunaldia emango zaio Elkartearen ordezkariari, zigor espedientearen jakitun izateko eta hala erabakiko balu zigortuaren aldeko defentsan laguntzeko.

- Udalak hala erabakiko balu, lagapen-epetan zehar egon litezkeen esleipendun berriei hasierako ikastaroa ematea.

#### *6. artikulua. Lagapen epea.*

Lursailaren erabilera-lagapena urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte izango da, eta gehienez deialdian zehaztutakoa, baina betiere gainditu gabe lau urteko muga.

Gehienezko lagapen epearen barruko urteko luzapenak adostutzat hartuko dira, baldin eta aldeetako edozeinen aurretiko abisu idatzirik ez badago hilabete bat lehenago lagapena edo hurrengo luzapenak amaitu aurretik.

Esleipendunak, lagapen epearen azken hilabetean baratzea garbi utzi beharko du, hurrengo esleipendunak lantzeko moduan.

#### *7. artikulua. Baratzeak erabiltzeko printzipio orokorrak*

Udaleko Hiri Baratzeak arautzeko printzipio orokorrak:

a) Onik zaintzeko eta mantentzeko printzipioa: Erabiltzaile guztiek beren gain hartu behar dute erabilgarri uzten zaizkien instalazioak onik zaintzeko eta mantentzeko ardura, eta behar den arreta jarri beharko dute horiek erabiltzerakoan.

b) Elkarrekiko errespetuaren printzipioa: Lurzatien erabiltzaileek ez diote inolako eragozpen, kalte edo galerarik eragingo elkarri.

c) Salerosten ez aritzeko printzipioa: Debekatuta dago baratzeetatik lortutako produktuak merkaturatzea; norberaren edo familia-unitatearen autokontsumorako baino ezingo dira erabili.

d) Ingurumen-prebentzioaren printzipioa: Ezingo da erabili Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEEK) baimendu gabeko ongarrri edo produktu fitosanitariorik.

e) Integrazioaren, sozializazioaren eta gizarte-kohesioaren printzipioa: Hiri-baratzeek balio sozial handia dute parte-hartzaileentzat; izan ere, denbora betetzeko aukera ematen diete, harreman berrien sare bat sortzen laguntzen dute eta bizi-kalitatea hobetzen dute, osasunerako oso positiboa den jarduera fisikoaren bidez. Ingurumenarentzat ere balio handia dute udalerrientzat; hain zuzen ere, berdegune publiko berriak bihurtzen direlako, non baratzea da protagonista, eta lurrarekiko harremana erraztu egiten dute.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat egokitutako baratze batzuk erreserbatu ahal izango du udalak. Eskaririk ez badago, baratze horiek kupo orokorrera pasatuko dira.

f) Hiriko aktibismo sozialaren printzipioa: Ereku publikoetan sustatzen direnean, bultzatu egiten dute elkarte-mugimendua, kultura eta partaidetza publikoa ere.

g) Kontsumo arduratsua, zirkuitu laburrak, nekazaritza jasangarria eta ingurumenarekiko sensibilizazioa sustatzeko printzipioa.

h) Uraren erabilera arduratsua oinarria: Baratzeen lagapen hartzaileek uraren erabilera jasangarria eta arduratsua egingo dute, horretarako honakoak kontuan izan beharko dituzte: uraren kontsumoa optimizatzeko euri-uraren erabilera lehenetsi beharko dute, ur-hartuneak ezingo dituzte zabalik utzi eta behar baino gehiago ez dute ureztatuko (Udalak edota elkarteak erabaki ahal izango du baratzeak dauden espazio guztiko gehieneko m<sup>3</sup>-ak).

#### *8. artikulua. Araubide juridikoa*

1.- Udaleko Hiri Baratze hauen erabilera kalifikatu behar da “herri jabariko ondasunen erabilera amankomun berezi” gisa eta, horrenbestez, aurretik administrazio-baimena behar du, honako arau hauen arabera:

- a) 33/2003 Legea (Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa) edo hori ordezkatu duena.
- b) 1372/1986 Errege Dekretua (ekainaren 30ekoa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena).

Baimen-kopurua mugatua denez, erabilera-baimena berariazko deialdiaren bidez esleituko da, baimena lortzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean. Dena den, Bergarako Udalak lurzati batzuk gorde ahal izango ditu, gehienez ere lurzati-kopuru osoaren % 10 arte.

Gordetako lurzati horiek adjudikatu ondoren, adjudikazio-hartzaile horiek ere elkarteko kide izan beharko dute.

2. Aisialdirako baratze ekologikoen adjudikazioa, jabetza eta erabilera arautzeko araubidea ordenantza honetan ezarritakoa izango da.

Era subsidiarioan, honako hauetako arauak aplikatuko dira: 33/2003 Legekoak (azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa –92. art.–) eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamendua.

3.- Udalak, interes publikoko arrazoiak daudenean, berak emandako baimena baliogabetu ahal izango du, inolako kalte-ordainerako eskubiderik sortu gabe, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 92.4 artikulua arabera –edo hori ordezkatu dezakeen araudiaren arabera–.

4.- Udalak lurzatien antolaketan eta banaketan aldaketak egiteko eskubidea izango du, baita lurzatien azalera aldatzeko ere, eta lurzatiak itxi eta erabili gabe uzteko aukera barne. Kasu horietan, udalak erabiltzaileei alde aurretik jakinarazi beharko die, behar besteko aurrerapenarekin, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Aldaketa horien ondorioz, erabiltzaileek ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, ez esleitutako lurzatien azalera galtzeagatik, ez lurzatiak itxi eta erabili ezin gelditzeagatik, ez lurzati horietan bil zitezkeen produktuengatik.

5.- Baratzea erabiltzeko baimena emateak ez dakar lurraren gaineko beste inolako eskubiderik.

6.- Erabilera-baimena pertsonala eta besterenezina da, eta ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean soilik mantenduko da.

7.- Baimena edozein unetan ezeztatu edo aldatu ahal izango da, justifikatutako arrazoiengatik, eta titularrak ez du horregatik inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik izango.

8.- Baimena baliogabetu ondoren, pertsona horrek baratzea erabiltzen jarraitzen badu, Bergarako Udalak bertatik atera ahal izango du, 33/2003 Legean aitortutako ahalmenak eta prerrogatibak baliatuz (33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa).

9.- Udaleko Hiri Baratzeak esleitzeko prozeduran parte hartzeak ordenantza honetan ezarritako arauak onartzea dakar.

#### *10. artikulua. Baratzeetarako programaren jarraibideak.*

Alkateak jarraibideak eman ahal izango ditu aisialdiko baratze ekologikoen programaren ezaugarri orokorren edo zehatzen inguruan, erak, ordutegiak, laborantza motak eta abar diziplinari atxikitzeko, oro har edo bereziki. Horrez gain, baratze erabiltzaileek jarraibideak derrigorrez bete beharko dituzte, hala nola gai horren inguruan Alkatetzak, zinegotzi/ordezkariek

edo horretaz arduratzen diren udal langileek erabiltzaileei idatziz emandako aginduak edo argibideak. Horiek guztiak derrigorrez bete beharko dituzte.

## II. ATALA

### ESLEIPEN PROZEDURA

#### 11. artikulua. Onuraduna izateko baldintzak.

1. Bergarako Baratze Parkean baratze ekologikoak esleitzeko lizentzien onuradun izan ahalko dira Bergarako udalerrian erroldaturiko pertsonak eta errealki herrian bizi direnak, gutxienez sei hilabete lehenago esleipenerako deialdia argitaratzen denetik kontatzen hasita. Horrez gain, honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Bergarako Udalarekin zerga edo beste mota bateko betebeharretan egunean egotea.
- b) Familia-unitatearen beste inolako kiderik beste baratze ekologiko baten esleipendun ez izatea.
- c) Zigortua ez izana aurretik aisialdiko baratzea izan eta ordenantza honetan aurreikusitakoa ez betetzeagatik.
- d) Baratzea erabiltzeko lizentzia-baimena indarrean jarri aurretik, udalak eta/edo elkarteak antolatutako baratze-zaintza ekologikoari buruzko derrigorrezko ikastaroa osorik egina izatea.
- e) Baimenak irauten duten bitartean Bergaran erroldatuta egon beharko da, errolda aldaketak berarekin ekarriko luke baimena galtzea.

#### 12. artikulua. Baimenak esleitzeko prozedura.

1. Aisialdiko baratze ekologikoak okupatzeko, erabiltzeko eta etekina ateratzeko eskumena emango duen baimenak emateko prozedura lehiaren bidez izango da, baratze kopurua mugatua baita. Dena den, arau hori ez da ezarriko Udalak interes taldeek erabiltzeko gorde ahal izango dituen lursailen erabilera espezifikorako.

2. Prozedura horri Udalak ofizioz ekingo dio, horren haritik eskumeneko tokiko organoak (Alkateak) ebazpena eman ondoren. Bertan aisialdiko baratze ekologikoak hartzeko lizentziak emateko deialdia eta deialdia arautuko duten oinarriak jasoko dira, baratze guztiena edo baratze kopuru mugatu batena, lizentzien gehienezko iraupena, .... Deialdi hori Udalaren Iragarki Taulan jendaurrean jarriko da, hala nola Udalaren web orrian.

3. Baratze ekologikoen esleipenean interesa duten pertsonak eskabide bat aurkeztu beharko dute Udal Erregistroan, eredu ofizialaren arabera.

Eskabideari erantsi beharko zaio, eredu normalizatuan eskatzen diren dokumentuez gain, honako dokumentazioa:

- a) NAN edo ordezkari agiri legala
- b) Aurreko Artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazten duen dokumentazioa edo zinpeko adierazpena.
- c) Deialdian zehaztu den dokumentazioa.

Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailearen aurreko sei hilabeteko errolda eta egiazko bizilekua, arau-hausterik ez izatea eta Udalarekin zerga betebeharretan edo bestelakoetan egunean dagoela.

#### 13. artikulua. Eskumenak eta prozedura.

Lizentziak emateko prozedura Alkatetzak ebatziko du.

Eskaera aurkezteko gutxienez hamar (10) egun naturaleko epea ezarriko da. Ondoren, onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda onartuko da eta iragarki Taulan jendaurrean jarriko da. Interesatuak erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte hamar (10) laneguneko epean gehienez. Epea amaitutakoan, eta jasotako erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko zerrenda duen ebazpena emango da.

Onartu eta baztertu direnen behin betiko zerrenda argitaratzeko iragarkian, udalak jakinaraziko du zein egun, ordu eta tokitan egingo den partzelen esleipena. Zozketa publikoa izango da eta edozein pertsonak ikusteko aukera izango du.

Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia izango da mahaiburua. Udal idazkaria bertan izango da, eta egintzaren fede emango du.

Zozketa egiteko, onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrendan oinarrituko da eta zozketa arautzen duten irizpideen arabera egingo da.

#### *14. artikulua. Lizentzien esleipena eta ordezkoen zerrenda.*

Adjudikazio-hartzaileei ematen zaien lizentziak argi azaldu beharko ditu honakoak: xedea, baratzearen definizioa eta kokapena, erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak eta lizentziaren indarraldia.

Baratzeren bat adjudikatzeko lizentzia lortzeko onuradun izan ez direnekin, ordezkoen zerrenda osatuko da. Zerrenda bajak betetzeko erabiliko da, baratze ekologikoak erabili eta gozatzeko okupazio lizentziaren bidez emandako eskubideari borondatez uko egin edo derrigorrez galdu izanagatik. Ondoren, hautagai den hurrengoari deituko zaio, aipaturiko zerrendan duen postuaren arabera, betiere lizentziaren indarraldian zehar.

Baratzea erabiltzeko baimena eman ondoren, adjudikazio-hartzaileak, egokitu zaion baimena jaso ahal izateko, kitatu egin beharko du udalak urte horretarako ezarritako tasaren diru-kopurua (dagokion ordenantza fiskalean finkatuko da zein den tasa), bai eta ezarritako fidantza jarri ere (Fidantzaren kopurua deialdiaren unean bertan finkatuko du alkateak). Fidantza hori adjudikazio-epea iragan ondoren itzuliko da baldin eta aldi berri horretan beste baratze baten adjudikazio-hartzaile suertatzen ez bada.

#### *15. artikulua. Baremazio irizpideak.*

Baremazio irizpideak dagokion lizitaziorako deialdian zehaztuko dira. Irizpide horiek aplikatuta, egoera berdinean dauden pertsonen arteko hurrenkera zozketaz zehaztuko da.

#### *16. artikulua. Baimenen behin-behinekotasuna*

1. Aisialdiko baratze ekologikokoan jabari publikoa erabiltzea eta gozatzea ahalbidetuko duten baimenek deialdian zehaztutako iraupena izango dute, eta gehienez ere lau urteko iraupen luzaezina izango da; dena den, titularrak hurrengo deialdietan parte hartu ahal izango du, betiere horretarako baldintzak betetzen baditu.

Berrito adjudikazio-hartzaile suertatzen badira, lehen erabili duten partzela berdina erabiltzen jarraitzeko aukera izango dute.

2. Kasuaren arabera eskumena duen organoak indargabetu ahal izango ditu aipaturiko lizentziak, baldin eta ez badira betetzen baimena ematea eragin zuten baldintzak edo adjudikazio-hartzaileei egokitzen zaizkien betebeharrak –ordenantza honetan zerrendaturik daudenak–, eta betiere ezarritako prozeduraren arabera.

*17. artikulua. Baimenen eskualdatzea eta iraungitzea. Baimenen azkentzea.*

Bergarako Baratze Parkeko aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko eskubidea ematen duten lizentziak:

- a) Ezingo zaizkio hirugarren bati eskualdatu.
- b) Epea amaitzeagatik iraungiko dira.
- c) Ezeztatu edo baliogabetu ahal izango dira:
  - c1) Elkarren arteko adostasunez.
  - c2) Epailearen erabakiaren bidez.
  - c3) Lagapen-hartzaileak uko egiteagatik.
  - c4) Beste udalerrri batean erroldatzeagatik.
  - c5) Ordenantza honetan edo dagokion lizentzia ematen duen ebazpenean bildutako betebeharrak eta xedapenak ez betetzeagatik, interesdunari audientzia eman eta espedientea tramitatu ondoren.

2.- Aurreko atalean adierazitako arazoirekin batengatik baimenak azkentzen badira, administrazio-prozedura bat izapidetu beharko da, 39/2015 Legean (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera.

### **III. ATALA**

#### **BARATZEAK ERABILTZEKO BALDINTZA OROKORRAK**

*18. artikulua. Erabilerarako baldintza orokorrak.*

1. Udal organo eskudunak sustatuko du Bergarako Baratze Parkean 20/1997 Irisgarritasun Legea betetzen duten baratzeak egotea, eta lehenetsiko du 11. artikuluan jasotako baldintzak beteta, desgaitasunen bat duten pertsonen baratzeak erabili ahal izatea.

2. Lursail bakoitza titular bakar bati esleituko zaio eta ezingo du horren erabilera laga hirugarrengoei. Horrez gain, honako betebeharrak bete beharko ditu, baratzeak erabiltzeari eta gozatzeari dagokionez:

- a) Arau orokor gisa, baratzeen erabilerari buruz ordenantza honetan jasotako alderdi guztiak errespetatu beharko ditu.
- b) Baratzeak soilik berez inguru honetakoak diren eta zurezko landareak ez diren baratze espezieak eta aldaerak landatu eta aldatzeko erabiliko dira, hau da: letxuga, tomatea, tipula, porrua, kalabazina, baba, etab. Era berean, loreak eta landare apaingarriak eta usaintsuak edo sendabelarrak ere landu ahal dira, gainerakoak baztertuz.
- c) Erabiltzeko lagatzen diren instalazioak eskuratutako baldintza berdinetan mantenduko dira, behar bezala zainduz. Lursailak garbi egon beharko du uneoro, bertan dauden landaketei kalterik eragin gabe.
- d) Erabiltzeko moduan ematen diren ondasunak zaindu eta babestuko dira. Udalari jakinarazi beharko diote baratze edo instalazioei eragiten dien edozein gorabehera, beste erabiltzaile batzuek zein kanpoko pertsonen eragindakoak izanda ere.
- e) Lizentziaren epea amaitzen denean Udalari itzuli beharko dio baratze-erabiltzearen, betiere beste edozein erabiltzailek etekina ateratzeko moduko baldintzetan; edota lizentziari uko egin edo baliogabetuz gero, hori burutzen den une berean.



f) Hasiara batean lagatzen den lursailaren egitura eta azalera mantentzea, Udalak ezarritako mugak aldatzeko aukerarik izan gabe, eta ezingo da inolako obra edo itxitura motarik egin, aurretiaz Udalaren eskumeneko organoak baimendu gabe. Era berean, lizentziaren titularrak ezingo du jarri lurra lantzeko ez den bestelako elementu espezifikorik, hala nola barbakoak, estalpeak, etxetxoak, etab., ez lurzorua azaleraren gainean, ez lurpean.

g) Baratzeak erabiltzen dituzten gainerako pertsoneri ez zaie eragozpenik sortuko; horrenbestez, ezingo dira erabili kalte edo lesioak eragin ditzaketen tramankulu, gailu edo sistematik.

h) Baratzean lurra lantzeko, garbiketarako edo beste edozein erabilerrako lurzoruan kutsadura eragin dezaketen produktuak erabiltzea saihestuko da.

i) Baratzeetan animaliak izatea eragotziko da.

j) Baratzeak lantzeari eta erabiltzeari ezingo diote utzi, eta bereziki fruituak ezingo dituzte utzi baldin eta kiratsa sortu, lursaila zikindu edo ingurua eta paisaiaren kalitatea kaltetzen badute, landarean edo lurzoruan egon edo ez.

k) Baratzeen barruan ezingo da trakzio mekanikoko ibilgailurik erabili. Lursaila prestatzeko lurra irauli behar denean golde mekanikoa erabili ahal izango da soilik.

l) Baratzeetan materialak edo tresnak pilatzea saihestuko da, ez baldin badira ezinbestekoak lurraren laborantzarako.

n) Ezingo da erabili musika ekiporik baratzean lurra lantzeko lanetan egonaldia girotzeko.

ñ) Elkarrekin bereganatutako betebeharretatik datozen gastuak finantzatzeko, elkarrekin – estatutuek horri buruz xedatzen dutenaren arabera– partizipazio-kuota bat ezartzea erabakiko du, eta ortuetako kontzesiodun guztiek ordaindu beharko dute.

3. Elementu komunak, bai azpiegiturak, bai lanabesak, erabilera eta garbitasun baldintza egokietan errespetatu eta mantendu beharko dira. Erabiltzaile bakoitzak elkarrekin ezartzen dituen elementu komunen mantenturako erabakiak bete beharko ditu ezinbestean. Era berean, elkarrekin ordezkari bat edo batzuk aukeratu ahal izango ditu elementu komunen gaineko erabaki lotesleak hartzeko, eta baita ordezkari bat Udalarekiko harremanetan bozeramaileak izateko.

4. Lizentziaren titularrak aurreko edozein baldintzetakoren bat ez betetzeak ekarriko du Udalak lizentzia baliogabetzea.

5. Era berean, erabiltzaileek eurek zainduko dute egunerokoan instalakuntzen kontserbazioa, konponketa eta mantenua, eta erabilera egokia ematen dela; eta haien ardura izango da instalazioen erabilera egokia, baita baratzeen eta lotutako azpiegituren kontserbazioa, konponketa eta mantenua, baldin eta ez badira ondo erabiltzen.

6. Adjudikaziodunek derrigorrez parte hartu beharko dute Udalak edota elkarrekin antolatzen duen baratze ekologikoko eta nekazaritza praktika egokien lehen ikastaroan.

7. Erabiltzaileen elkarrekin egutegi bat ezarri beharko du, behar diren mantentze lanetan lankidetzan jarduteko (lursailak mugatzea, uraskak garbitzea, etab.). Egutegi hau adostua izango da Udalaren zerbitzu teknikoekin.

8. Adjudikazio-hartzaileek bete egin beharko dute erabiltzaileen elkarrekin udal zerbitzu teknikoekin batera ezarritako ixteko eta irekitzeko ordutegia.

### *19. artikulua. Lurrari etekina ateratzea*

1. Lagapenaren titularra beharturik dago baratzeetarako lagatako lursaila nekazari on baten arduraz lantzeraz eta lanabes egokiak erabiltzeraz. Aurreko artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, baratzei etekina ateratzeko honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Ez da onartuko lurra, zorua edo azpiko lurren narriadura eragin dezaketen landare-espezie edo landareak landatzea.
- b) Era berean, erabiltzaileak ezingo du landatu espezie exotikorik, inbaditzailearik edo Legeak lantzea edo ereitea baimentzen ez dituen bestelakorik.
- c) Halaber, ez da baimenduko inolako zuhaitz espezierik landatzea, ezta fruitu arbolarik ere.
- d) Ezingo da instalatu negutegirik, kaxarik, iltzaturiko elementurik, txabolarik, txorimalorik, arranpalorik edo panpinarik.
- e) Debekaturik geratuko da larre hondakinak edo baratzeetako laborantza hondakinak erretzea, baita aisialdirako baratze ekologikoen eremuaren barnean inolako surik piztea ere.
- f) Ezin da likidorik isuri besteen baratzeetan, eta ezingo da dira sastraken edo garbiketaren hondakinak bertan edo baratzean utzi.
- g) Ez da baimenduko paisaia kaltetzen duten elementurik instalatzea edo dauden instalazioak aldatzea, hala nola bidoiak, ur-biltegi osagarriak, xaflak, bereizgailuak eta antzekoak.
- h) Lursailetan ezingo da eraiki, ezta itzalpekorik, esekigailurik edo inguruaren itxura aldatzen duen bestelako elementurik erantsi ere.
- i) Ezingo da pozoirik erabili, zeporik, tranparik, lakiorik edo perdigoik edo balin eskopetarik, tiragomarik edo beste tresna edo bitartekoen bidez egindakorik.
- j) Ez da baimenduko lursailetan itxiturak jartzea edozein motatako hesiekin, harriak, egurrak, adreiluak, blokeak edo eraikitze edo mugatzeko bestelako elementuak baratzea ixteko, mugatzeko, markatzeko edo baratzea seinalezatzeko, bertako izkinak edo ertzak. Mugatzeko soilik izango dira Udalak ezarritakoak.

2. Lizentziaren titularrak aurreko edozein arau betetzen ez badu, horrek ekarriko du titularrak lizentzia galtzea.

## *20. artikulua. Adjudikazio-hartzailea eskumenak.*

1. Erabilera amankomun berezi hau egiteko baimenen adjudikazio-prozeduran adjudikazio-hartzaile izan diren pertsonak ahalmen hauek izango dituzte: baratzea osatzen duten lurra eta gainontzeko elementuak edukitzea, erabiltzaile gisa, eta erabiltzaileei dagokien aprobetxamendua izango da baratzeetan landu dituzten barazki espezieen etekinak jasotzea, hau da, lurrotatik lortutako fruituak.

Eskumenak zehazten dira lurraren erabileran, onura eta etekina ateratzean, eta berekin dakar lurra goldatzea, ereitea eta landatzea, lurra zaintzea eta mantentzea, ureztatzea, ongarriztatzea, horretarako beharrezko tresnak erabiltzea, fruituak biltzea, eta barnean uler daitezkeen gainerako gaitasun guztiak, lagatzen den ondasunaren helburu eta izaerari jarraiki.

2. Era berean, horren barnean sarturik daude elementu komunen erabilera, horiei etekina eta onura ateratzea, Udalak erabiltzaileen eskura jartzen dituen laborantzarako lanabesak erabiltzeaz gain.

3. Artikulu honetan adierazitako eskumenak lizentziaren titularrari baino ez dagozkie.

4. Eskumen horiek iraungiko dira erabiltzeko lagapenaren epea amaitzen denean, edo berau gaitzen duen lizentzia baliogabetzen bada, ordenantza honetan jasotako arrazoietan oinarrituta.

5. Baratzeen jabetza-eskubidea ez da inola ere emantzat hartuko, herri-jabariko ondasunak direlako. Izan ere, ondasun horiek herri-jabariko izaera dute, ezin dira bahitu, ezin dira besterendu eta ezin dira preskribatu.

#### *21. artikulua. Nekazaritza ekologikoa. Nekazaritza bioaniztasuna*

Baratze-erabiltzaile onuradunek ezingo dute erabili lurrak, gainazaleko urak edo akuiferoak kutsatu edo kalte larria sor lezaketen ongarririk, ez produktu zoo eta fitosanitariorik, edo atmosferara nahi ez ditugun partikulak isuri edo inguruko faunan eta floran eta bertako bizilagunengan kalteak eragin litzatekeenik. Era berean, ezingo da erabili lurra kutsatzen duten produktu kimikorik.

Halaber, erabat debekaturik dago lurrean edozein produktu kutsatzaile isurtzea, lurrean kalte handia sor dezakeena, alegia. Izurriteen eta gaixotasunen aurka, irtenbide naturalak erabiliko dira. Lurra gai organikoaren bidez ongarrituko da, aldezturik usteldutakoa (konposta, simaurra, hondakin organikoak, etab.).

Ongarri organikoa erabiltzerako orduan, lehentasuna izango du baratzeetan sortutako konpostak eta bigarren maila batean Bergarako udalerrian auzo-konpostean sortutako konpostak. Bi kasuetan, aurrez, elikadura esparruan erabiltzeko gaitasunerako analisiak egingo zaio konpostari, konposta gai den ala ez jakiteko jateko izango diren barazkiak ekoizteko. Elkarrearen betebeharra izango da aipatutako analisiak egitea.

Ez da erabiliko ongarri artifizialik.

Jarduera hau laborantza metodo tradizionalekin uztartu nahian, baina ingurumenaz modu zientifikoan arduratzen diren ezagutza eta teknika berriei uko egin gabe, landu beharreko nekazaritza ekologikoa izango da. Hortaz, produktu kimikoak alboratuko dira; produktu "kimikoak" dira, produktu "naturalean" aldean, honako hauetatik sortzen diren produktuak (simpleak edo konplexuak):

- a) Produktu naturaletatik sortuak tratamendu kimikoen bidez,
- b) Landare gaietatik edo animalia ehunetatik sortuak tratamenduen bidez,
- c) Sintesi kimikotik sortuak, partzial izan ala ez (A. Dehovel-en definizioaren arabera).

Gauzak ulertzeko modu horrekin bat etorrita, Bergarako Baratze Parkearen lursailak erabiltzeko nekazaritza ekologikoko arau hauek hartu beharko dira kontuan:

1) Ongarriei dagokienez:

Debekatuta daude:

- a) Sintesiko ongarri organiko guztiak (Espainiako estatuan saltzen diren guztiak) eta produktu kutsatuekin egindako konpostak (pestizidekin eta herbizidekin tratatutako lastoak, simaurrak, belarrak eta ongarri organikoak).
- b) Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatatuak, potasikoak, magnesikoak, kare bizia, etab.).

Onartuta daude:

- a) Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpostatutako simaurrak (konpostajea fermentazio aerobikoaren prozesutzat ulertuta), ongarri berdeak eta erabat deskonpostatutako uzta-soberakinak, bai eta kutsatu gabeko hondakinekin egindako konpostak ere.
- b) Jatorri naturaleko ongarri mineralak (txikitutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri txikituak, dolomitak, etab.).

2) Tratamendu fitosanitarioei dagokionez:

---

Debekatuta dago:

- a) Intsektizida, fungizida eta akarizida eta sintesi kimikotik eratorritako beste produktu guztien erabilera.

Onartuta daude:

- a) Substantzia natural mineral, begetal edo animalienetan oinarrituta sortutako fungizidak (Bordeleko salda, Borgoinako salda, etab.).
- b) Landare bidez egindako prestakinak (beratzeak, infusioak, egosketak, purinak).

3) «Belar txarrei» dagokienez:

Debekatuta dago sintesiko edozein herbizida kimiko erabiltzea.

Onartuta dago belar lehiakorren kontrolerako metodo biologikoak erabiltzea (lur-estaltzea, eskuz jorratzea edo erdi eskuz jorratzea, zapalda edo baratze-maila sakoneko laborantza).

4) Haziei eta landareei dagokienez:

Debekatuta dago:

- a) Birlandatzeko, laborantza kimikotik datozen barazkiak erabiltzea.
- b) Prestatzeko edo kontserbatzeko sintesiko produktu kimikoekin tratatutako sustrai, erraboil eta tuberkuluak erabiltzea.
- c) Bildu ondoren produktu kimiko sintetikoekin tratatutako haziak erabiltzea.
- d) Genetikoki aldarazitako edozein motatako eta bariatetako organismo guztiak (transgenikoak).

Onartuta dago:

- a) Nekazaritza biologikotik eratorritako barazki, sustrai, erraboil, tuberkulu eta haziak erabiltzea.
- b) Produktu horien erabilera, ohiko laborantzetatik etorri arren, produktu kimiko sintetikoekin landu ez baldin badituzte. Garatu beharreko laborantza ekologikoak ekoizpen eta kontsumo jasangarrien praktiken eredu izan behar du.

## *22. artikulua. Ureztatzeko baldintzak.*

1. Baratze erabiltzaileen titularrek eskura jarriko zaien ureztatzeko sistema erabili beharko dute. Sistema Bergarako Baratze Parkearen barruan dago eta ureztontzien bidez ureztatzeko da, urasketako ura erabiliz.

2. Ureztatzeko euri-uraren erabilera lehenetsiko da. Hau nahikoa ez balitz elkartek onartu dezake ur-edangarriaren erabilera, horretarako kontagailu bat jarriko da eta tasa elkarteari kobratuko zaio. Nolanahi ere eta abusuak ekiditeko, Udalak mugatu ahal izango du edangarria den uraren erabilera.

3. Ezingo dira erabili daudenak ez diren beste elementu batzuk. Horrez gain, debekatuta dago ureztagailuak edo inguruko baratzeak inbadi ditzaketen beste baliabide batzuk erabiltzea.

4. Debekatuta dago baratzeak ureztatzeko, horretarako prestatuta ez dagoen beste nonbaitetik ura ekartzea.

5. Edonola ere, ur-hartunea irekita uztea saihestuko da, ureztatzeko ura ez da alferrik xahutuko, eta ez da erabiliko eskura dagoen uraren ezohiko kontsumoa eragin dezakeen metodorik. Horiek guztiak lizentzia baliogabetzeko arrazoiak izan daitezke.

### *23. artikulua. Hondakinen tratamendua eta biohondakinaren konpostatzea.*

1. Baratzeen erabiltzaileen ardura izango da bai egokitzen zaien lursaila baita Baratze Parkeko eremua ere garbi mantentzea eta hondakinak udalak horretarako jarritako edukiontzian edo xedaturiko tokian uztea.
2. Hondakin organikoek dagokienean, erabiltzaileak baratzean sortutako biohondakinak konpostatzera behartuta egongo dira, horretarako udalak Bergarako Baratze Parkean egokitutako azpiegitura erabiliz.
3. Gainerako hondakinak gaika bilduta utzi beharko dituzte eta soil-soilik udalak horretarako ezarritako gunean edo zaborrontzian.

### *24. artikulua. Lurrak emandako fruituen erabilera.*

1. Erabiltzaileek lurra lantzearen ondorioz lortzen diren fruituak biltzeko eskubidea izango dute, baina soilik norberak edo norberaren familia-unitateak kontsumitu ahal izango ditu.
2. Bergarako Baratze Parkeko lursailetan erabiltzaileek lortzen dituzten baratze produktuak ezingo dituzte saldu, ezta merkataritzako inolako eragiketarik egin, non horien merkataritzako trafiko juridikorik dakarrena.

### *25. artikulua. Mantenimendu eta finantzazio gastuak.*

1. Lizentzia indarrean dagoen aldi osoan zehar baratze-erabiltzaileak bere gain hartuko ditu baratzea lantzeak dakartzan gastuak, hala nola ongarririk, ereindako landareak eta lurra lantzeko beharrezkoak diren gainerakoak. Horrez gain, saila ekoizteko moduan behar bezalako zaintze-baldintzetan mantendu beharko du.
2. Erabiltzaileek ordaindu egin beharko dute egokitzen zaien karga oro (zerga, kanon, etab.) baldin eta udalak Zuzenbideari jarraiki eta behar bezala justifikatuta onartzen badu hori beharrezkoa dela baratzeen erabilerak edo elkarteak eragindako kostuak ordaintzeko.
3. Erabiltzaileek baratzearen erabileragatik urtero Udalak onartzen dituen Ordenantza Fiskaletan ezarritako tasa ordaindu beharko dute.
4. Elkarteak bere aldetik, ur-edangarriaren kontsumoa eta argindarra (argindarra balego) ordaindu beharko ditu. Baita erabiltzen lagatutako instalazioen eta lanabesen mantenu egokirako gastuak eta baita egin beharreko inbertsio berriak ere.

### *26. artikulua. Ingurumen Hezkuntza.*

1. Bergarako Baratze Parkean dauden instalazioak hainbat ikastetxetako ikasleek bisitatu ahal izango dituzte, bai eta hainbat elkartek ere, era horretan bertan burutzen diren jarduerak ezagutarazteko eta, bide batez, nekazaritza tradizionalaren eta ekologikoaren balioak erakusteko.
2. Hala izan dadin, baratze-erabiltzaileak beharturik egongo dira sartzan uztera –baratzeek duten irekiera-ordutegian zehar– udalak antolaturiko bisita-taldeei.
3. Halakoetan, erabiltzaileek lagundu beharko diete, ahal duten neurrian, ikasleekin batera doazen irakasleei edo gainerakoek, baratzeetan dauden bitartean. Era horretan bisita taldeei azalduko diete zein diren fase desberdinetan dauden lurra lantzeko teknikak eta ezaugarriak: lurra prestatzea, ongarritzea, ereitea edo landatzea, ureztatzea, jorratzea, izurriteak ezabatzea, uzta biltzea eta hondakinak jasotzea.

4. Halaber, erabiltzaileek naturari eta lurrari loturiko balioak transmititu ahal izango dituzte. Horretan dituzten ezagutzak azalduko dituzte, lurra lantzeko erabilitako metodoei eta tokiko espezie eta barietateei buruz, bai eta ikasleen eta beste talde batzuen interesa pizteko moduko beste edozein daturi buruz ere, bereziki nekazaritza tradizionalaren eta ekologikoaren alorrean edo, oro har, ingurumenaren alorrean. Horrez gain, belaunaldien arteko harremanak ere sustatuko dira.

#### *27. artikulua. Erabiltzaile-izaera galtzea*

1. Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzeak Bergarako Baratze Parkearen erabiltzaile-izaera galtzea dakar, eta, horrenbestez, galdu egiten da gozatzen zen erabilera amankomun bereziko eskubidea eta baratzea erabiltzeko baimena eta eskubidea.

2. Bereziki, erabiltzaile egoera honako hauen ondorioz galduko da:

- a) Atzera egitea edo eskubideari uko egitea, baratzea erabiltzeko onuradunak aurretik Udalean aurkezturikoa.
- b) Erabiltzailearen heriotza.
- c) Errolda aldatzea, edo jarraian edo benetako edo errealki ez bizitzea udalerrri honetako etxebizitza batean lizentzia indarrean dagoen bitartean.
- d) Lursailaren erabileran edo lantzean utzikeria izatea hamabi hilabetetik gora.
- e) Adjudikazioa egitea eragin zuen baldintzaren bat gerora aldatu delako.
- f) Ordenantza honetan zehazturiko bateraezintasun edo debekuren bat gertatzea.
- g) Baratzea erabiltzea ordenantza honetan ezarritako bestelako erabilera eta helburuetarako.
- h) Udalak edo beste edozein administrazio publikok hirigintzako edo azpiegiturako edozein plan onartzea baldin eta horrek ekartzen badu hornikuntza publikoren bat ezartzea Bergarako Baratze Parkea osatzen duten lursailetan. Halakoetan, horrelako plana onartzeak berarekin ekarri beharko du erabilera publikotzat edo gizarte interesekotzat aitortzea, eta horrela indarririk gabe laga ahalko dira herri-jabariko lursailak erabiltzeko emandako tituluak.
- i) Bizikidetzaren eta auzo-harremanen oinarrizko arauak ez betetzea edo elkartasunik gabeko jarrera izatea, baratzeen gainontzeko erabiltzaileekin.
- j) Arau-hauste larria edo oso larria izateagatik zigorra ezartzea, horiek lizentzia baliogabetzea baitakarte beti.

#### *28. artikulua. Lizentzia baliogabetzeko prozedura eta erabiltzaile egoera galtzea*

1. Erabiltzaile-izaera galtzea udalak gauzatuko du lizentzia baliogabetzeko prozedura baten bidez. Prozeduran erabiltzaileari gertakariak azalduko zaizkio, hamar (10) eguneko epea emango zaio alegazioak egiteko, eta ondoren espedientea behin betiko erabakiko da. Epe bera eskainiko zaio elkarteko ordezkariari, espedientatutakoaren defentsan zerbait esatea nahiko balu.

2. Erabiltzaile-izaera galtzeak inola ere ez du ekarriko bere aldeko kalte-ordainik aitortzerik, ezta ordaindutakoa itzultzeko eskubiderik ere. Baina fidantza konfiskatu egingo da eta udalari eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio. Eta, horretaz gain, itxarote-zerrendan dagoen hurrengo eskatzaileari adjudikatu ahal izango zaio baratzea.

## **IV. ATALA**

---

## ERANTZUKIZUN ERREGIMENA

### *29. artikulua. Baratzearen laborantzarengatiko erantzukizuna*

1. Baratze-erabiltzaile bakoitza laga zaion baratzearekiko egiten dituen ekintzen erantzule da, banakako gisa. Erabiltzaileak lizentzia eskatzeak eta, beraz, ordenantza hau osorik ezagututa, esan nahi du dagokion adjudikazio-hartzaileak oso-osorik onartzen duela baratzea erabiltzeko gaitzen duen baimena eta, aldi berean, erabiltzaileak berak bere gain hartzen duela lurra okupatzeagatik eta lantzeagatik sortzen den erantzukizuna, betiere ordenantza honetan ezarritako baldintzetan; eta bereziki erantzukizuna bere gain hartzen du banakako gisa honako alderdi hauetan:

1) Lurra lantzeko prozesuan; udalak ez baitu erantzukizunik lurra lantzerakoan gertatutako eragin edo ondorioekiko, bereziki lurraren egoerari eta ekoizpen-gaitasunari buruz.

2) Lurra lantzeko eran; udalak ez baitu erantzukizunik tresnen erabilerarekiko, ezta erabiltzaileak tresnak erabiltzerakoan osasunean edo osotasun fisikoan izan ditzakeen ondorioekiko ere.

3) Baratzean gerta daitezkeen ekintza bandaliko, lapurreta edo kalteei buruz, produktuetan nahiz fruituetan, edo erabiltzaileak bildu edo gorderiko tresnetan. Halakoak ezingo zaizkio udalari egotzi, inola ere.

4) Animaliek baratzean edo landutako produktuetan sor ditzaketen kalteei buruz.

5) Baratzean bildutako produktuek erabiltzailearen, besteen edo kontsumitzaileen osasunean izan dezaketen eraginean.

2. Erabiltzaileak baratzean edo lagatako instalazioetan kalte edo akatsen bat atzemanaz gero, norberarena nahiz hirugarren batena, horren berri elkarteari eman beharko dio derrigor, eta ondoren elkarteak udalari jakinaraziko dio.

### *30. artikulua. Hirugarrenen aurreko erantzukizuna*

1. Erabiltzaileek hirugarrenei –Bergarako Baratze Parkeko erabiltzaile izan edo ez– sor diezazkieketen kalteen arduradunak izango dira, betiere duten lursaila erabili eta ustiatzeko ahalmenak burutzean sortzen direnean.

2. Halaber, gainontzeko erabiltzaileei edo horiek dituzten baratzeei eragindako lesio edo kalteen erantzule izango dira.

3. Behar bezalako arduraz jokatu beharko da, gainontzeko erabiltzaileen baratzeetan edo erabiltzaileengan edozein kalte, eragozpen edo lesio motarik ez eragiteko.

### *31. artikulua. Udalari eman beharreko kalte-ordaina*

1. Erabiltzaileek baratzeak lantzearen ondorioz hirugarrenengan edo haien ondasunetan sortutako erantzukizunen arabera, erabiltzaileak beharturik egongo dira kaltetuari egokitzen zaion kalte-ordaina ordaintzera, izandako kalte edo lesioengatik.

2. Erantzukizuna sortuko balitz kalteak baratzean edo udalak erabiltzeko lagatako instalazioetan eragin direlako, udalak eskubidea izango du dagokion kalte-ordaina erreklamatzeko, aplikagarri izango diren administrazio-zuzenbideko arauen arabera. Horretarako irekiko den espedientean, elkarteko ordezkariari ere entzunaldia emango zaio.

### *32. artikulua. Hasierako egoerara itzultzea*

1. Baratzea itzuli egin beharko da adjudikazio-hartzaileari eman zitzaion baldintza berdintsuetan, lurra kanpoko ekarpenengatik nabarmen aldatua izan gabe.

2. Baratze-erabiltzaile titularrek instalazioak hondatu dituzten kasuetan –betiere eguneroko erabilerak eragindakotik harago doanetan–, gauzak hasierako egoerara itzuli edo konpondu beharko dituzte.

3. Erabiltzailearen batek konpontzeko eginbeharra beteko ez balu, udalak zuzenean konpondu ahal izango du, baina haren kontura. Administrazioak kasu horietarako dituen ahalmenak erabili ahal izango ditu udalak, hark itzulketa egin dezan.

## **V. ATALA**

### *DIZIPLINA ARAUBIDEA*

#### *33. artikulua. Arau orokorrak*

1. Bergarako Baratze Parkeko erabiltzaileek derrigor bete beharko dute ordenantza honetan ezarritako guztia, eta bertan aurreikusi ez diren kasuetarako Tokiko Erakundeen Ondasunen gaineko Araudia bete beharko dute.

2. Ordenantzaren aginduen kontrako edozein jarrera arau-haustetzat hartuko da eta udalak zigortu egingo du.

3. Erabiltzaileek Baratze Parkeko instalazio edo lursailetan kalterik eragingo balute dolo, erru, utzikeria edo besterik gabe ez jabetzeagatik, edo aurka egingo baliote baratzeen xede nagusiari edo euren ordenantzari, zigortuak izango dira bide administratibotik, isun bidez, ordenantza honetan jasotakoari jarraituz.

4. Zigorren diru-kopuruaren graduazio eta zehaztapena irizpide hauen arabera egingo da:

a) Eragindako kaltearen diru-kopurua.

b) Arau-hausleak jasotako etekina.

c) Nahita eginda izatea edo nahi gabe izatea.

d) Izaera bereko arau-hauste bat edo gehiago egin izana urte bateko epean, ebazpen finkoen bitartez adierazi direnean.

5. Isunaren zenbatekoa arau-hausleak izandako etekina baino txikiagoa denean, isunaren kopurua igo egingo da etekinaren kopurua parekatzeraino, eta gehienez eragindako kaltearen bikoitzeraino igo ahal izango da.

6. Erabiltzaileen erantzukizuna nagusia edo zuzenekoa izan ahalko da, baldin eta eurak badira arau-hausleak, edo zeharkakoa, ekintzen egilea instalazioetatik kanpoko norbait denean eta erabiltzaileak ontzat hartuta edo haren utzikeriak ahalbidetu dituenek ekintza horiek.

#### *34. artikulua. Ikuskaritza*

1. Udalak hautatutako langileek instalazioak ikuskatu ahal izango dituzte, nekazaritzako jarduerak burutzeko ezarritako ordutegiaren baitan. Langile horiek agintari-izaera izango dute ikuskaritzan diharduten bitartean.

Era berean, alkateak eta eskumen materiala duen zinegotzi ordezkariak xede eta funtzio berak izango dituzte.

2. Bergarako Baratze Parkeko erabiltzaileek aurretik aipatutako pertsonen baratzeetarako sarbidea erraztu beharko diete, baita haiek eskatzen dieten informazio guztia eman ere, aisialdirako baratze ekologikoetan egindako laborantzaren erabilera, aprobeitxamendu eta kudeaketaren jarraipena behar bezala egiteko.



### 35. artikulua. Arau-hausteak

1. Jarrera arau-hausletzat joko da baratzeetako erabiltzaileek zein kanpoko pertsonaren batek izandako jarrera oro baldin eta ordenantza honetan edo aplika daitekeen beste edozein arauditan (ordenantza honetan jasotzen baldin bada beste araudi hori ezinbestean bete behar dela) esandakoaren aurka egiten badu.

2. Arau-hausteen sailkapena hau da: arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak; jarrera arau-hauslearen edo instalazioetan eragindako kalteen intentsitate edo erru mailaren arabera.

3. Zehazki eta aurrekoari kalterik egin gabe, honako jarrerak arau-hauste arintzat joko dira:

a) Ordenantza honetan xedatutako baldintzetan baratzerako bereziki egokiak diren barazki-espeziak ez landatzea edo ez lantzea baratzeetan.

b) Baratzeetan animaliak izatea.

c) Baratzeetan trakzio mekanikoko makineria edo ibilgailuak izatea.

d) Ez betetzea udalak bere langile teknikoen bitartez emandako argibideak, baratzen erabileraren inguruan.

e) Baratze-erabiltzaileek izandako beste edozein jarrera, baldin eta udalak baratze-erabiltzaileei ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta zereginen aurkakoa bada eta ez baldin bada arau-hauste larria edo oso larria.

f) Udalak antolatzen duen lehenengo prestakuntza-ikastarora ez joatea kausa justifikaturik gabe.

4. Arau-hauste larritzat joko dira honako jarrerak:

a) Erabiltzeko lagatzen diren baratzeen mantenimendua ez betetzea, baratzeak kaltetu edo hondatu diren kasuetan.

b) Lursailean obrak edo aldaketak egitea, udalak aldeztu aurretik baimendu ez baldin baditu.

c) Beste erabiltzaileek jasan beharko ez lituzketen eragozpenak sortzea.

d) Udalak baimendu gabe hirugarrenei baratzearen erabilera lagatzea.

e) Lurra, zorua edo lurrazpia kaltetu dezaketen espezieak eta landareak lantzea.

f) Baratzeetan onartzen ez diren barbakoa, biltegi edo bestelako elementuen instalazioa.

g) Belardiak edo baratzeetako laborantzaren hondarrak erretzea, edo aisialdirako baratze ekologikoen barruan edozein su-mota piztea.

h) Bi arau-hauste arin edo gehiago pilatzea urte beteko epean.

5. Arau-hauste oso larritzat joko da honako edozein jardunbide:

a) Gainontzeko baratzeetako kideei eragindako lesioak, edozein erabiltzailek edo harekin doan beste edozeinek eragindakoak.

b) Zoruan kutsadura sortzea.

c) Beste erabiltzaileei baratzeen behar bezalako aprobetxamendua eta erabilera eragozteak.

d) Baratzeen ohiko funtzionamendua eragotzi edo ez uztea.

e) Lagatzen diren instalazioak edo/eta lursaila bera larri eta nabarmen hondatzea.

f) Landatzea, ereitea, biltzea edo edukitzea debekatuta dauden landare exotiko edo psitropikoak edo bestelakoak ekoiztea.

g) Aisialdiko baratze ekologikoen ustiapenak emandako produktuak komertzializatzea.

h) Nortasun, adin edo baratzen erabilera esleitzeko garrantzitsua den beste daturen bat faltasutzea, edo nortasuna ordeztea.

i) Bi huts-egite larri edo gehiago pilatzea urte beteko epean.

6. Lizentziaren titularrak arau-hauste larri edo oso larriren bat eginez gero, lizentzia baliogabetu egingo zaio, betiere ezarriko zaion zigorrari kalterik egin gabe, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera. Lizentzia baliogabetzen bada, erabiltzaileak ez du aukerarik izango kalte-ordainik jasotzeko.

Horrez gain, arestian xedatutakoari kalterik egin gabe, erabiltzaileraren batek izandako jarrerak delitu-izaera balu, gertakariak aginte judizialaren esku utziko dira, izan daitezkeen izaera penaleko ardurak erabakitzeko. Dena den, udalak salatuko ditu alderdi kaltetu gisa legezkiokoen ekintza penal, zibil eta administratibo guztiak.

### *36. artikulua. Zehapenak*

1. Egokitzen diren zehapenen diru-kopurua ezarri eta erabakitzeko, ordenantza honetan jasotako graduazio-irizpideak erabiliko dira.

2. Arau-hauste arinak, 60 eta 300 euro bitarteko isunekin zigortuko dira.

3. Arau-hauste larriak, 301 eta 1.000 euro bitarteko isunekin zigortuko dira.

4. Arau-hauste oso larriak, 1.001 eta 3.000 euro bitarteko isunekin zigortuko dira.

5. Bergarako Baratze Parkeko instalazioetan kalterik eraginez gero, erantzukizuna duen erabiltzaileak gauzak jatorrizko egoeran zeuden bezala utzi beharko ditu, eragin den kaltea konponduz.

6. Lizentzia baliogabetzeak, aurreko artikulua seigarren atalean aurreikusitako jarraiki, ez du izango zigor-izaerarik.

### *37. artikulua. Zehatzeko eskumena duten agintariak*

1. Zigor horiek jartzeko eskumena Alkate/Presidenteari dagokio.

2. Edonola ere, alkateak tokiko beste organo bati delegatu ahalko dio gaitasun zigortzailea, Toki Araubidearen Oinarrien Legeari jarraiki.

### *38. artikulua. Prozedura zigortzailea*

1. Arau-hausleei zigorrak jartzeak prozedura zigortzaile bat ireki eta abiaraziko du, urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean aurreikusitako erregimenaren arabera. Espedientean hamar (10) eguneko entzunaldia emango zaio elkarteko ordezkariari, zigortuaren aldeko defentsan zerbait alegatzea nahiko balu.

## **VI. ATALA**

### *OINARRIEN INTERPRETAZIOA ETA BALIABIDEAK*

### *39. artikulua. Interpretazioa.*

Ordenantza hau interpretatzerakoan sortu daitezkeen zalantzak alkateak erabakiko ditu, dagokion Lurralde arloko batzorde informatzailearen proposamena aztertu eta gero.

*Xedapen gehigarria*

Intereseko taldeei udalak adjudikatu ahal izango die, hitzarmen bidez, haientzat udalak erreserbatutako espazio batzuk, dagokien hitzarmenean zehaztutako baldintzetan, eta adjudikatutakoan elkartean ere sartu beharko dira eta ordenantza honetan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte.

*Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.*

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 65.2 artikulua xedatzen duen epea igaro ondoren, eta indarrean jarraituko du Udalbatzarrak aldatu edo derogatzea erabaki arte.